

Pablo Lorente Zapateria

Nafarroako IU-EBko Nazioarteko arduraduna

Kuba: etorkizunerako itxaropena

■ Kubari buruz idazten hasten garenean, nire ustez ia mekanikotzat jo daitekeen era batean jarduten dugu beti... hau da, Iraultzak iorturiko aurrerapen handiak gorensten ditugu. Marti, Cienfuegos, Che, Castro eta beste hainbatek egindakoak laudatzen ditugu...; edo, bestela, diktadura castristan dagoen askatasun falta, blokeoaren ondorioak (blokeoaz gogoratu gabe)... kritikatzuten ditugu. Hala ere, uste dut badela garaia etorkizunari buruz aritzeko.

Kubako herria lehen bezala orain ere osotasun eta koherentzia handia erakusten ari da, eta hori, inondik ere, mundu honetako toki gehien-gehienetan ez bezala, harro egoteko modukoa dute. Antiimperialista eta anti-kapitalista den prozesu iraultzailearen aha-legen izugarriak lortu duten bizi kalitateari (hezkuntza, osasun, elikadura eta abarri) esker lortu da alpatu osotasun eta koherentzia. Estatu Batuek irlandi ezarritako blokeo etengabeak ez du lortu ezaugarri hori hondatzea, hain gutxi Miami-ko *har* pottoloek, edo Ipar *aberats* eta *demokratikotik* Fidel Castro buru duen Gobernuaren aurka erruz zabalzen diren akusazio eta gezur nahastailak.

Kuban % 90 biztanlek baino gehiagok hartzen dute parte udal esparruan ordezkariak zuzenean hautatzeko prozesuan. Kuban oraindik ere ematen dizkiete bekak Iparrak esplotatzen jarraitzen duen Hegoko herrietako ikasleei (egun, Saharako 1.500 ikasle ari dira ikasten irian, hainbat mailatan). Kuban, kritikak hain erraz egiten diren garai zail hauetan, oraindik ere mantentzen dute osasun eta hezkuntza sistema publiko eta doakoa, inbidiagarria Hegoko herrietarantz ezezik Nazioarteko Ordena Berriaren bermatzailearentzat ere, hau da, betikoarentzat, Estatu Batuentzat, beren mugen baitan 40 milioi

Kubako herria lehen bezala orain ere osotasun eta koherentzia handia erakusten ari da, eta hori, inondik ere, mundu honetako toki gehien-gehienetan ez bezala, harro egoteko modukoa dute

txiro baitituzte.

Egia da *jineterismo*-a, merkatu beltza... existitzen direla irla hartan. Baina *persona* eta estatu demokrata prestuentzat gaitz eta *training* diren horiek krisi garaian azalateraten ari dira, areagotuta, gainera, bai kapitalak bai -ez dezagun ahantz- duela 30 urtetik gora irlaren aurka ezarrita dagoen blokeo ekonomiko, politiko, kultural eta informatibo hiltzaile eta faxistak eragindako distortsioarengatik.

Kubako Iraultzak etorkizuna du, Kubako herria etorkizuna da, eta Ricardo Alarcon-ek egokiro esan zuen: «Ez dituzte laborariak berri ere beren lurretatik botako; herriari ez dizkiote berriro ere itxiko hondartzak, ospitaleak, bilguneak; ez dira berriro ere langileen izerdiaz jabetuko; ez dituzte beltza eta umila berriro ere baztertuko are ibiltzea ere galarazi zieten auzoetatik. Herri honetan ez dute inoiz gehiago nekazaririk desalojatu, maizterrik botako, ez da inoiz gehiago arrazakeriarik, esplotaziorik, laidorik, lotsagarrikeriarik izango. Inoiz ere ez».

Eta, lerrokada honetara iritsita, agian zeure buruari galdetuko diozu non idatzi dugun Kubaren etorkizunari buruz: bada, gogoeta labur honetan zehar, konpai!, etorkizunerako itxaropena iragana ez ahanzte eta oraina erakitzea baita. Han, irlan, Kubako herria ahal duen gutzia egiten ari da, etorkizunaren alde borrokatzen ari da, beraiena ez beste inorena baita. Hemen, berriz, blokeoa ari gara salatzen, amaiarazteko borrokatzen, imperialisismoaren eta injustiziaren hodei beltzak berriro ager ez daitezten Habanako Malekoian edo Sierra Maestren magalean. ■

Erredakzioan izulia

Ramon Labaien



Zapi!

Madrilen hauteskundeak direla eta, alderdi berri bat sortu digu Gorordo jaunak, Bilboko alkate ohiak. Alderdi berri bat, alderdi zaharren alderdikeriarekin bukatzeko, eta hor duzue gorordismoaren bai barneko izari eta bai helburua. Plentziako xoko zoragarrian Primo de Riveratxo berri bat sortu balitzagu bezala bere burua kanpo, beste guztiena garbitzeko erabaki sakon batekin. Korapilo izanik beste alderdi berrien bat ez ote den premiakoa izanen, Gorordorenaren alderdikeria txikitzeko eta baita ere beste Gorordo bat gaurko Gorordoari azken xuriketa bat emateko, eta horrela *ad infinitum*. Eta Euskal Herri osoa pozik, ikusiz alderdi berriak, Bilborentzat eta Bilboren nagusitasuna aitortzen duten bizkaitarrentzat sortua izan arren, ez duela ukatzen badela zerbait, Zappi Euskal-Herriek osatzen duten amets hortan. Bakoitzarekin dagokion lekuan, noski. Eleizan bezala, denok Gotzai baina bai buru, eta argi dago, Gorordorentzat, Maulekoa ez litzakeela egokieta. Denok dakigu gauza bat dela Espainiako Herriaren demokrazia eta bestea Euskal-Herriko Herriarena. Biak batean ez direla posible eta beraienak duela gurea itotzen. Hala ere, Espainiako hauteskudeetan partaide garenaz hobe genuke, euskaldun jendeok, tinko eta bat egink azalduko bagina.

Txillardegí



Metaziria

Sekulako abarrotsa eragin dute Elkarriren esanek. Eta egun hauetako gertakari horrek iruzkin luze sakona merezi luke. Zutabe honetatik at, beraz, lekuaren urritasuna dela-ta.

Elkarri-ren Agiriak irakurketa semiologikoa behar du. Ximplekiago esanda: egoeraren *señale* gisa, sintoma gisa, hartu behar da.

Itsutasun larria litzateke Elkarri-k, behar genuen miraritzko soluzioa atxeman duela sinestea. Egundun hauetan txalo jo duten gehienek, ETaren kontrako kritikak txalotu dituzte, bakarrik: eta ez esan diren ideiak. Heim batez, horretara, begizta urdina txalotu eta bultzatu duten berberek txalotzen dute gaur Elkarri. Baina ez berek bakarrik. Hau ere ongi ulertu behar da. Aldaiaren ekintza gaitzesten dutenen multzoa, eta begizta urdinaren aldekoen multzoa, ez dira multzo bera.

Funtsean, eta oro har, Ajuria-Eneko Ituna politika oinarri bakartzat hartu dutenak daude multzo batean: *España de las Autonomías*, eta kitto, Errejonalistak, hitz batez. Eta Euskal Herriarentzat *Burujabetza* (Auto-Determinazioa eta Independentzia) eskatzen dugunok, beste multzoan. Hau da gure metaziria. Elkarri-ren oihartzunak, behin eta berriz batzuk aldarrikatzen dugunez, *hutsune politiko* bat adierazten du. Ajuria-Enekoen projektua *España* da. Eta Ezker Abertzalearenak, *Aberrri Askatasunaz gain* beste izari *adjetiboak* itsatsirik auzketzen dituelako, murriztu egiten du bere oinarri soziologikoa. Tarte bat dago, zabalda.

Eta Elkarri-k hau ulertu du.

L A P h I T Z A

